

Aretxabaleta,
1993ko urriak 28

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Ibarra barriztu
guran

- Udal aurrekontuak
- Kapirixo elkarte
- Afizioak: Juan Carlos Vazquez



Guk idazki honetan jorratu nahi dugun gaia, atal honetan behin baino gehiagotan aztertua izan da. Dena dala, gure asmoa beste ikuspegi bate-

"Egungo gizartean dagoen kontsumismo eskaintza ugariak ez duela parte hartzen laguntzen"

Partehartze ezaren kostea

tik deskribatzea da.

Gaur arte, ekintza eta inizatiba desberdinetan herriaren partehartze zabalagoaren edo itxia-goaren gaia ikuspegi sozial-kulturaletik sakondua izan da. Beti ere, biztanle Atxabaltarren parte hartze ezaren inguruan erreflexioak egin dira (jaietan, gabonetan...). Argi dago, era honetan, egungo gizartean dagoen kontsumismo eskaintza ugariak ez duela parte hartzen laguntzen.

Sarrera txiki honen ostean zera azpimarratu nahi dut. Ba ote dakigu biztanlegoaren partehartze ezak zer suposatzen duen?. Ikus daitekeenez galdera honek ekono-

mikoa den kriterio batera daramagu, hala ere bakarra ez duela zertan izan behar uste dut. Ditugun gastu hauetatik batzuk ez dira kopuru handikoak baina guztiak batu ezkeror urteko gastuan eragin dexteoa izan dezakete.

Gastu hauek (buruhandiak, kabalgatak...), egun instituzioek finantziatzen dituzte, lehen ostera izaera herrikoa zuten (sozietateak, elkarteak). Arestian esandakoa kontutan hartuta, hiritarrari galdera bat datorkio burura "baina nik neure zergak ordaintzen ditut". Egia da bai!. Gertatzen dena hauxe da; publikoak diren zerbitzuak, hiritarren utzikeria hau dela eta,

gero eta gehiago dira: zerbitzu sozialak, drogomenpetasun zerbitzua, kirol monitore, jardinen kontserbazioa.... Horrela itxura batez balantza orekatu egiten da baina gastuak uzterakoan, herritarrak eskubide osoz eskatzen dituen zenbait zerbitzu ez ematea suposatuko luke.

Guzti honi, hiritarrentzat instituzioetatik jaiotzen diren inizatibak oso era beroan hartuak ez dira izaten gehitzen badiogu. Argi gelditzen da, denok esfortsu txiki bat egingo bagenu efektu bikoitza lortuko genukeela. Alde batetik izaera herrikoa duten inizatibetan parte hartze zabalagoa eta bestetik gastuen

aurrerapen garrantzitsua, honek instituzioetan denok uzten dugun "sarren" erabilpen hobea lekarke. Erreflexio honekin Atxabaltarrengana zuzendu nahi dut, dauden ekintza desberdinetan, guztion partehartze zabalagoa eskatzeko.

Honela errealitate sozial-kultural dinamiko eta bariatu bat, gure errekurtsoen hobekuntzaren gestioarekin konpaginatu dezakegu.

**J. Mari Armentia
E.A.ko zinegotzia**

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Ekologikoa egiten da.

Joaten zara kanposantura Domu Santu egunean?



Begoña Ugarte
(Langilea)

Bai, joaten naiz. He-men ez dut senitarteko-rik, baina beti ematen dut bueltatxobat, ohitura bat da niretako.



M. Carmen Murgiondo
(Langilea)

Ez naiz urtero joa-ten, baina batzuetan bai. txabaltako kanposan-tuan ez dut inor, nahiz eta kanpoan bai, horre-gatik gustatzen zait joa-tea.



Timoteo Bengoia
(Langilea)

Bai, joaten naiz, ora-in arte arrea bat izan dugukanposantuan, ora-in kenduta dago. Baina, hala ere, joaten naiz, Atxabaltara eta Larrino-ra.



Antonio Varilla
(Langilea)

Ez naiz joaten, niri kanposantura joatea, lo-rak jarri... rolo hori ez zait gustetan.

KARTAK

Merkataritzaren laguntza teknikorako kabinetea

Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak, ML-TKak (Mondragoeko ka-leko 5ean, Mankomuni-tatearen egoitzan koka-tua) eskualdeko merka-taritza-arloari dohainik zerbitzua ematen jarrai-tu nahi du; eta Olatz Muruamendiaraz aurre-ko aholkulariaren lekual-daketa dela eta, birmol-daketatxo bat egingo da 1993. urterako; beraz, aipatu Kaboneteak AS-TEARTE eta OSTEGUN etan lan egingo du, goi-zez, eta Victor Manuel Perez Eguren aholkularia

arduratuko da orain arte egindako lanari jarraipe-na emateaz.

Eginasmo direnekin-ten artean, Arrasateko IBAI-ARTE Merkatarien Elkartek antolatuturik, ESKAPARATISMOari buruzko bi ikastaro emango direla jakinaraz-ten dizuegu:

- 1. maila: urriaren 25etik azaroaren 5era, gaueko 9etatik 11etara.

- 2. maila: azaroaren 22tik abenduaren 3ra, arratsaldeko 2,30etatik 4,30etara.

Dauden zerbitzuez

ahalik eta gehien balia zaitezten merkatariorik, edozein argibide eskutu edo galdera egiteko jar zaitezte harremanetan V ictor, Merkataritzako Aholkulari Teknikoarekin, 79 33 99 telefonora dei eginez.

Victor Manuel Perez
Merkataritzako
Aholkulari Teknikoa

Oharra

Aretxagazetan hainbat eskutitz jaso di-tugu publikatzeko as-moz. Baina eskutitz hauek anonimo bezala etorri zaizkigu.

Sinatu gabeko eskuti-tzak ezin ditugu argita-ratu, beraz zuen iritzia-ki argitaratu gura baditu-zue, badakizue, Ekarri zuen eskutitzak Aretxa-gazetako bulegora edo 151 postakutxatilara; baina sinatuta. Bestela orain arteko filosofiaz ja-rraituko dugu, ez ditugu argitaratuko. Eskerrik as-ko.

Aretxagazeta

Enpresari txikiei zuzendutako ikastaroa

Atxabaltako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatuta ikastaro bat emango da azaroaren 8tik aurrera.

Ikastaroa Eskaparatismoari buruzkoa da. Ikastaroa batez ere, enpresa edo denda txikiei begira eginda dago. Enpresa zein supermerkatu handien konpetentziaren aurrean, txikiak duten arazoei irtenbidea emateko prestatu da. Beraz oso interesgarria izan daiteke ikastaroa arazo horren aurrean daudenendako.

Eskaparatismoari buruzko ikastaroan eskaparatzea zela dekoratu, argiak, koloreak, objektu desberdinen kokapena zela egin, eskaparatzea birmoldatzeko trinkimailuak... zela ipini ahalik eta erakargarri eta disdiratsuen erakutsiko da. Irakaslea Jose Antonio Lomas Suazo izango da. Esperientzia haun-

diko gizona dugu, besteak beste Cortefiel dendako eskaparatista ere bada. Ikastaroak 20 orduko iraupena izango du.

Interesa duten denek, udaletxean eman dezakete izena, Marta Madinabeitiarengana zuzenduz.

Jakin ezazue, ikastaroa debalde dela, ez galdu beraz aukera.

Bestalde, dagoeneko Deba Garairako, mendiko langilea izateko zeuden postuak bete dira.

123 gizon-emakume probetan parte hartzeko deituak izan ziren. Kopuru horretatik 110 aurkeztu ziren egin beharreko lan desberdinetarako eta azkenean zortzik lortu zuten proba guztiak gainditu eta lanpostua eskuratzea. Zortedun horien artean atxabaltar bi; Felis Lete eta Juan Angel Basterrika.



VII. argazki lehiaketa

Murrukixo Mendizale Elkarteak, Atxabaltako Udalaren laguntzaz VII. argazki lehiaketa antolatu du. Lehiaketan argazkilaria afizionatu guztiak parte har dezakete.

Argazki lehiaketan atal bi izango dira: A atalean gaia librea da, eta argazkiak zuri-beltzean zein koloretan egin daitezke. Autore bakoitzak gehienez lau argazki aurkeztu ditzake, aurretik inon saritu bakoak. Tainua gura dena, baina beti ere 30 x 40eko euskarrietan ipinita. Lan bakoitzaren atzekaldean lema eta argazkiaren izenburua idatzi behar dira.

B atalean gaia "Men-

dia bere hedapen osoan" izango da eta beste baldintza guztiak A atalean agertzen direnak.

Parte hartu gura duten denek helbide honetara bidali beharko dituzte lanak: Murrukixo M.E, 34 postakutxatila, 20550 Aretxabaleta.

Sariak honako hauek izango dira: A talaeen 1. saria 40.000 pta eta garaikurra, 2.ak 30.000 pta eta garaikurra eta 3ak 20.000 pta eta garaikurra. B atalean, 1.ak 40.000 pta eta garaikurra eta 2.ak 30.000 pta eta garaikurra.

Herriko argazki onenarentzako saria 10.000 pta eta garaikurra izango da.



Gipuzkoako Foru Aldundiak Diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

SAGASTA ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALETA



Domu Santu Eguna

Datorren azaroaren 1ean, Domu Santu egunean, ohitura denez, herriko jendeak kanposantua bisitatuko du, hildakoak omenduz.

Egun horretan, kanposantua loraz apaindurik, garbi eta txukun aurkituko dugu, familian hildakoei lorak eroatea da ohitura.

Kirol materialak euskaratzeko bekak badu irabazlea

Iñaki Frieria, I.V.E.F.eko itzultzaileak, lortu du Deba Garaiko Euskara eta Kirol Zerbitzuek antolatutako "kirol materiala eskuratzeko" beka. Beka 300.000 pezetakoa da eta bertan 20 bat partaide aurkeztu

ziren.

Aurtengoan, frantsez idatzitako futbolari buruzko liburu bateko zatia itzuliko dira.

Horrela apurka-apurka kirol materiala euskaratzeko asmoa dago.

Kapirixo elkarte

Kapirixo Deba Garaiko ondare kultural, artistiko eta historikoa zaintzeko elkarte da. Irailean sortu zen Kapirixo taldea eta herri bakoitzean taldea eratzeko asmoa dute. Aretxabaletako taldea eratzeko lehenengo bilera urriaren 20an izan zen udaltxean. Bilera horretan

elkartearen asmoen eta filosofiaren berri eman zen.

Datorren azaroaren 5ean Kapirixo Elkartearen Batzar Nagusia egingo da Bergaran, estatutuak onartu eta lanean hasteko. Lana haundia da, baina beharra ere bai. Animatu zaitzete parte hartzera.

Lehenengo diapositiba lehiaketa

Almen K.E.ak Juan Ramon Aranaren omenezko 1. diapositiba lehiaketa antolatu du, azaroaren 7rako.

Lehiaketan Deba Garaiko edozeinek parte hartu dezake. Izen ematea, goizeko 8'30etatik 9ak arte izango da Almenen. Parte-hartzaileei koloretako 24 diapositibako karrete bana emango zaie eta izen emateak 500pezetako kostua izango du. Ataratako argazki karreteak Almen K.E.aren lokalean entregatu beharko da, eguerdiko ordu batetan. Gaia, urteerant jakinaraziko da.

Diapositiba bilduma onenarendako 15000pza eta trofeoa izango da, bigarrenak 10.000 pza eta trofeoa, eta hirugarrenak 5.000 pza eta trofeoa.

Argazki onenak, barriz, 5.000pza eta trofeoa, bigarrenak 3.000 pza eta trofeoa. Azkenik jubenil onenarendako sari berezia eta trofeoa izango da.

Diapositiba sorta bakoitzak sari bat besterik ezin du eskuratu.

Antolatzaileen esanetan, eurek ez dute inolako erantzunkizunik hartuko gerta daitezkeen istripuekin eta saritutako diapositibak, antolatzaileen eskutik geratuko dira. Anima zaitzete lehiaketan parte hartzera.

• Udalerrri honetan bizi diren 1976. Urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean jaiotako muti-lek, 1995. soldaduzka txandarako izena eman behar dute. Hori dela eta udal-erretxeko bulegoetan, arratsaldez, azaldu beharko dute, abenduaren 24a baino lehen, N.A.N.ren fotokopia birekin.

• Datorren urriaren 29an, Almeneko 2. R.E.Mko ikasleek, Atxabaltako Zaria zineman, moda desfilea egingo dute, urte bukaerako bidairako dirua lortzeko asmoaz.

• Aurreko alean, "txirridulari zuzendari ikastaroan", izen emateko epea, azaroaren 29an zela jarri genuen. Baina urriaren 29an izango da. informazio gehiago Euskera Sailean.



Otalora kaleko fatxadak barrizten hasiko dira.

Iraileko plenoan hainbat proiektu onartu ziren

Irailean egin zen plenoan, 17 puntutatik 11 hirigintza sailekoak izan ziren:

30. sektoreko hirigintza proiektua: behin betirako Ibarra sektoreko hirigintza proiektua onartu zen.

22A sektorearen desjabetzea: Udala eta jabea, Iturbe inguruko errekararen bideratzeko obrak egiteko akordio batera heldu ez direnez, desjabetzea egingo da. Publikoki ageri ondoren eta jabeari notifikatu eta gero, alegaziorik jaso ez denez, Eusko Jaurlaritzari zoruaren okupazioaren

eskaria egin zaio.

22D sektorea, hirigintza proiektua: Iturbe sektorearen hirigintza proiektua behin betirako onartua izan da, aldaketa garrantzitsu batzuk gehituz.

Arau subsidiarioen aldakuntza 32. sektorean: 32. sektorearen limiteak aldatu gura dira, Almenen jabetza 32. sektorearen barruan besterik geratu ez dadin. Azken finean, herri bien (Atxabalta- Eskoriatza) arteko limiteak finkatzea dute helburua.

Deba errekararen biderapena Markoleko zubia

eta kiroletxeko sarreraren artean: Udala eta inguru horretako lur zati baten jabearen artean izandako negoziazioetan adostasunik izan ez dela jakin eta gero, Udaleko hirigintza sailak desjabetze espedientea zabaltzea erabaki du.

San Migel aldean lan osagarrien hirigintza proiektua: proiektu horretan erreka ertzean ibilbidea egiteko asmoa dago, parke bat eta baita trafiko erregulatzailerik izango den rotonda bat ere. Proiektu horiek aurrera eroan ahal izateko 35.120.354 pezetako aurrekontua izango du Udalak.

Eusko Jaurlaritzako hirigintza, etxebizitza eta inguruguneko saila eta Aretxabaleko Udala-ren arteko hitzarmenaren onarpena: Aretxabaleko Udalak, aurreko atalean adierazitako hirigintza proiektua aurrera eramateko hitzarmena onartu egin du. Hirigintza sailak 30 miloi jarriko du, 20 miloi 1993 urtean emango dira eta beste 10 miloi 1994. urtean.

Ikastaroak

Eskoriatzan ikastaro interesgarri bi antolatu dituzte, bata pintura ikastaroa eta bestea keramika.

Amuska taldeak pintura ikastaroa antolatu du, Foru Aldundiaren laguntzaz. Ikastaroa azarotik hasiko da, arratsaldeko 6etatik 8ak arte. 30 ordu iraungo du eta 2.000 pztako kostua izango du. Plazak mugatuak izango dira eta izena eman gura duenak Kultur Etxean eman beharko du izena.

Keramika ikastaroa Eskoriatzako Udal Kultur Batzordeak antolatu du, Foru Aldundiaren laguntzaz. Azarotik hasiko da, arratsaldeko 6etatik 8ak arte eta 30 ordu iraungo du. Prezioa 2.000 pztakoa izango da eta bertan apuntatu gura dutenek Kultur-Etxean eman dezakete izena. Ikastaro horretan ere plazak mugatuak izango dira.

Beraz badakizue, Eskoriatzan aukerako ikastaro bi dituzue gura duzuen guztiondako.


**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

ANDONI ALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
☎ 79 10 60



**EGUZBIGRAF
INPRIMATEGIA**

**Aldizkariak
Impresoak**

Bulegoko materialak

Basabe poligonoa, F-0-4 Tfnoak 79 29 41 - Faxa 79 18 44

Azkenean onartu dira aurrekontuak


Urriaren azkenetan 1994eko aurrekontuen borradorea aurkezteko epea bukatzen den arren, urriaren 21ean egin zen plenoan 93ko aurrekontuak onartu ziren azkenean.

Plenoa 10 minutuko atzerapenez hasi zen eta alkatea, EAko zinegotzi bat eta HBko beste bat ez ziren egon. EAk egin zuen lehen interbentzioa, gero PSOEk, EAJK eta azkenik HBrena etorri zen. Plenoa atipikotzat hartu daiteke, interbentzio guztiak, EAJrena ezik, gastelera izan ziren eta, beste batzuetan ez bezala.

Alderdietako ordezkariak egin zituzten interbentzioetan honako puntu hauek izan ziren esanguratsuenak: lehenik aurrekontuek izandako atzerapenez kezatu ziren, udalbatzako kideen artean izandako desakordioak agerian utzi zituzten eta aurten eman den zorraren inguruan kezkatuta azaldu ziren.

Aurtengo aurrekontua, 93koa hain zuzen ere, 696.800.000ptakoa da, 92koa, barriz, 505.000.000ptakoa izan zen.

Kap.	Kontzeptua	93ko aurrekontua	92ko kitapena
1	Soldatak eta Aseguru Sozialak	133.000.000	116.000.000
2	Gastu korrontea (Argia, zabor bilketa, bankuak, ura, kale garbiketa, materiala...)	140.000.000	128.000.000
3	Maileguen interesak	44.000.000	45.000.000
4	Diru laguntzak (Taldeak, Makomunitateko zerbitzuak...)	94.000.000	57.000.000
6	Inbertsioak	244.000.000	132.000.000
7	Kapitalaren trasferentzia (Sailuenteko ermitaren garbiketa, Oroko bidea...)	3.000.000	6.000.000
8	ARINSA eta ASESako akzioen erosketa	600.000	3.500.000
9	Maileguen amortizazioa	37.000.000	16.000.000



30. Poligonoan, Ibarra aldean, hasi dira lanak. Proiektua orain dela urte asko sortu zen, baina aurten hasi dira benetako lanak. Horren barri izan guran Asesako lehen-dakaria den Migel Angel Deldagorekin egon gara berbetan, azkenengo barri guztiak jakiteko.



Ibarra aldeko poligonoa

• 30 Poligonoa sortzeko ideia nondik dator?

• Poligono horren garapena aldez aurretik Arau Subsidiarioen barruan pentsatuta zegoen. Hamarkadaren azkenetan etxebizitzaren egoera zela zegoen ikusita poligonoaren promozioa bultzatzera animatu ginen.. 80-89 hamarkadan, Atxabaltan 400 etxebizitza bultzatu ziren, eta etxe horiek samur saltzen ziren. Udalak gestioak samurtzen zituen, eragileek egiten eta saltzen zituzten etxebizitzak, gainera prezioak onak ziren.

Dinamika hori aldatuz doa, gainera txarrera. Adibidez, Atxabalta moduko herri batek hasieran etxebizitzak egiteko 8 zonalde zituen, toki horiek errosiaz joan ziren eta beste guztiak kontratisten eskuean geratzen ziren. Orduan ikusi ginen promotoreen arteko joku irregularra zegoela. Irtenbide eta aldake-

ta posibleak aztertuta gero, Ibarra poligonoan erakundeen bultzadarekin zeribat interesgarria egin zitekeen ondorioa heldu ginen. Poligonoa orain arte ez zuen inork ikutu, karga handiko eta etekin txikiko zonaldea zelako eta gainera etxebizitza gutxi zeudelako.

Hori denori aztertuta gero, lanak egiten hasia erabaki genuen. Zenbat etxebizitza egin zitezkeen aztertu genuen, baita konfederakuntzak errekararen bideratzea ordaintzeko egin behar genuen gestioa ere eta guzti horren ondorioz kirol arloan Foru Aldundia sartzea lortu genuen.

Horrela, 1988an lehenengo marraz egin genituen planoetan eta 1989an planeamendua martxan jarri genuen. Udalaren helburu interesgarrienetako bat prezio erosoko etxe bizitzak egitea zen.

• Zein izan da eman

den lehenengo pausua?

• Ezer egin baino lehenago, planoak eta zenbakiak egin genituen eta poligonoa ekilibratu bat egiten saiatu ginen. Horiek izan ziren gure lehenengo pausak, 90 urtetik 93ra artekoak. hurrengo pausua, proiektua aurrera eraman ahal izateko, Administrazioarekin harremanetan jartea izan zen.

Poligonoak 62.000 metro karratu dauka eta dena ondo lotu gura genuen. Azkenean batzar ugari eginda gero Deba errekararen bideratzean, konfederakuntzak konpromezua hartzea lortu genuen. Bideratze modelu mesedegarriena aukeratzeko dagokion diseinua egin zen eta horrela gaur eguneko moduko erreka izan beharrean, paisaiari begira erakargarriena izan zena hartu genuen.

• Zela geratuko da zonalde hori urbanizazio guztia bukatuta gero ?

• Erreka aldeko zonalde lauean, kirola egiteko zonaldea joango da. Hemen gauza inportanteena bedar artifizialeko futbol zelaia eta errekararen bideratzea izango dira. Hasiera batean horren inguruan atletismo pista zegoen proiektuan, baina lekurik ez zegoela ikusita, proiektuak murrizketa bat izan zuen. Futbol-zelaiaren ondoan oraindik ez dago zehaztuta zer joango den. Aldez aurretik pentsatu zen entrenamenduak egiteko ze-

" Erreka aldeko zonalde lauean kirola egiteko zonaldea joango da. Inportanteena bedar artifizialeko futbol-zelaia izango da"

lai libre bat, tenisean jokaketako zelaiak... egitea.

Poligono horretako helburu garrantzitsuen a etxebizitzaren zonaldea da. Mendialdearen azpiko aldean bikoitz eta ohizkoak izango diren 90 etxebizitza joango dira eta mendialdearen goikaldean banakako 30 etxebizitza, euren partzela eta guzti, egitea pentsatu da.

• Konstruktoreen subasta zela egin duzue?

• Lan guztia ez diogu konstruktore bati adjudikatu. Guk lanak konstruktora desberdinen artean banatu ditugu. Bide horrek behar bada lan haundia eskatzen du, baina gerora obra guztiari prezio aldetik mesede gehiago egiten dio.


• Zela doa etxeen salmenta?

• Esan beharra dago oraindik ez garela hasi etxeak saltzen, gure lana momentuan, bazkideak erakartzeko lana da, etorkizunean etxebizitzaren erosleak izango direnak.

Momentu honetan mendiaren azpikaldean 90 etxebizitzetatik 60 erreserbatuta daude. Mendiaren goikaldean 25 kontsulta inguru ditugu, baina bakarrik kontsultak dira. Oraindik itxoin egin behar dugu zenbat demanda dagoen jakin arte.

• Ze aurrekontu erabili duzue?

• 2.200 milioi behegain, hirigintza eta baterata-



sunerako. Horri 180 milioi gehitu egin zaio errearen bideratzea dela eta, gehi kirola egiteko zonaldearen gastuak.

• Zela geratuko dira kirol instalakuntzak?

• Bedar artifizialeko zelaila izango da gauza garrantzitsuen a. Bere kostua 72 milioi izango da eta horri armailen kostua, 50 milioi dena, gehitu behar zaio.

Futbol-zelaiaren partean, beste zonalde bat libre geratuko da. Zonalde libre hori Udalaren eskutik geratuko da, berak gura duena egin dezan.

Baina futbol zelaiak luzarora ez du diru asko beharrik, ureztatu besterik ez

" 2.200 milioitako aurrekontua daukagu dena egiteko, horri 180 milioi gehitu behar zaio, erreka bideratzeko "

da egin behar, etorkizunera begira ez du arazorik eukiko. Horretaz aparte, zonalde hori horrela egongo da osatuta: kontrol kabina bat, 4 aldagela gehi arbitroarena, botikin gela, batzar gela, bildegia, instalazio gela, jendearentzako komunak, takila eta taberna bat.

• Ze epe jarri duzue dena bukatzeko?

• Legeak dioena kontutan hartzen badugu, lau urte barru bukatu beharko genuke urbanizazioa, baina beste gauza bat da eraikuntza obrek ze jarraitzen eukiko duten.

Guk lau urtetan dena bukatuta ikustea espero dugu.

Aretxabaletan badugu mutil bat, afiziotzat irratia duena. Bera Juan Carlos Vazquez da eta 24 urte ditu. Orain dela urte bi eman zituen bere lehenengo urratsak irratizaleen munduan. Ordutik buru belarri dabil irrati uhinetan murgilduta. Bere afizioaren barri jakin guran, elkarriketa txiki hau izan dugu berarekin.



Irrati afizionatuak Atxabaltan

• **Zelakoa da irrati ekipoa?**

• 27 MHztako bidaltzailea, horrekin batera mikrofono edo "MIC" bat, eta antena bat, hori da behar duzun dena.

• **Elkar ezagutzeko gatzizenak erabiltzen dituzue, zein da zurea?**

• Cocodrilo Dundee.

• **Non daukazu irratia?**

• Nik erosotasunagatik kotxean daukat.

Etxean eukiko banu, etxeokak molestaturik nituzke eta gainera etxean ez dut horrenbeste denbora ematen.

• **Zein da berba egiteko erabili duzun tarterik luzeena?**

• Hori oso errelatiboa da, nik Italiako jendearekin berba egin dut. Baina urrutiko jendearekin berba egiteko ekipoa behar da. Altuerak ere inportantzia du guzti

honetan.

• **Zela konpontzen zarete elkarri ulertzeko?**

• Kodigo bat daukagu. Hemen erabiltzen duguna "Q" da. Nire ize-na kodigo horretan izango litzateke: "Charlie-Oscar-Charlie-Oscar-Delta-Romeo-India-Lima-Osca" "Delta-Uniform-November-Delta-Eco-Eco"

• **Zenbat balio de-**

zake ekipo on batek?

• "Super Jopix 1.000" k adibidez 40.000 pza balio dezake.

• **Irrati afizionatu izateko zer egin behar da?**

• Lehenengo dakite-nekin frogatu behar duzu eta ondoren, gustatzen bazaizu, ekipoa erosi dezakezu. Gero legalizatu egin behar da eta bost urterako 11.000 pza ordaindu behar diozu telekomunikabideari.

• **Zertarako erabiltzen duzue irratia?**

• Gehienetan jendeari laguntzeko erabiltzen dugu.

• **Badaukazue elkarterik?**

• Lehen Leintz Bailararako bazegoen bat, Aretxabaletako Lanbide Eskolan, orain itxita dago.

• **Debekatua dago gidatzea irratia erabiltzen duzun bitartean?**

• Horretarako bada-gu aparagailu bat "Manos Libres" deitzen dioguna eta horrekin arriskua txikiagoa da, interruptore batekin ixoketan da.

**J. Fuensanta
R. Velasco**

ANGELINES
Autozerbitzua



Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

**MATIKUA
TABERNA**

Azata auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA

**AITZIBER
NIÑOS**

• Umeentzako moda
• Amagaia

Lezama Merkatal Zentruan

Urriaren 24ean, domeka, Eskoriatza Arrasate I kross herrikoia korritu zen. 16 urtetik gorako gizon eta emakumeendako zegoen antolatuta. Lehenaldia izan da esperientzia hori mar-txan jartzen dena, baina antolatzaileek esan zute-nez aurrerantzean ere ja-rraitzeko asmoa dago.



I. Kross Herrikoia Eskoriatza-Arrasate

Krossaren helburua Esko-riatza, Atxabalta eta Arra-sate herrien arteko loturak gerturatzea izan da, kirola bitartekari jarriaz.

Krossa aurrera eroate-ko laguntzaileak honako hauek izan ditugu: Chapi-me, Ikatz, Seguros Zurich, DYA, Aretxabaletako Uda-la, Arrasateko Udala, Eskoriatzako Udala. Antolat-zailea, barrez, Arrasate At-letiko taldea izan da.

137 atletek eman zu-ten izena, 21 emakumeak izan ziren eta 116 gizo-nezkoak. Lasterketa 12'30etan hasi zen Esko-riatzako plazan, Eskoriat-zatik Atxabalta zeharkatu

eta helmuga Arrasate er-dian zegoen kokatuta. Kontuak kontu, horrela geratu zen sailkapena:

Senior gizonetzkoetan azkarrena Joxe Apalanza izan zen 20' 53", bigarren tokian Antonio Merino helmugaratu zen 20' 55" denboraz eta hirugarrena Manu Hurtado 21' 42" denboraz.

Senior emakumezkoetan lehena Rosi Talavera izan genuen 25' 42", biga-rrena Pilar Arriola 30' 16" eta hirugarrena M Rosa Agirre 30' 55".

Beteranoetan, ostera, hauek izan ziren hiru lehe-nak. 1º Enrique Kabiketa

22' 23", 2º Jose Galan 24' 04" eta 3º Francisco An-dres 24' 41". Emaku-mezkoetan, 1º Camila Bra-vo 29' 54", 2º M Eugenia Gonzalez 31' 45" eta 3º M Jose Gil 31' 50", azken hau arrasatearra.

Juniorrei dagokionez lehena Borja Alvarez 22' 40", bigarrena Beñat Ayas-tui 23' 07" eta hirugarrena Mikel Trebolazabala 23' 16" izan genituen.

Emakumeetan atxa-baltar bi jaun eta jabe izan genituen, lehena Amaia Gaztañaga 30' 24" den-boraz eta bigarrena Leire Rodriguez 31' 17" denbo-ra ginez.

Udak eta Lagun Onak taldeak neurtu zituzten indar-rak domekan. Azkenean hutsnako berdinketa nagusi. Orain Uda 10. postuan dago kokatuta 8 puntuz. Dato-rren igandean Pasajes bisitan Ibarra. Lehe-nengo errejona-lekoek 2 eta 1 irabazi zioten Haizea taldeari. Hurrengo erronka Azkue-nen kontra izango da. Udako Emaku-meeek berriz, 4 eta 0 irabazi zuten Ikastola Urretxuren kontra.

Azaroaren 22tik 26ra bitartean Murruxiko Mendi Elkarteak Mendi astea antolatuko du.

BITXITEGIA




MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

Otalora Kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57
ARETXABALETA

Zein da aldezkaririk irakurriena Atxabaltan? Zure **publizitatea** 2.500 txokoetara iristea gura baduzu, dei egin. Izena emango dizu **Aretxagazetan** iragartzeak.

Deitu 79 01 05 telefonora



Atxabalta XVI. mendean

Aurreko Aretxagazetan agertzen zen marrakia, ia gure gazte sasoikoa bazen ere, gaur azaltzen dizueguna, historiaren gau iluneari galtzen den horietariko bat dela esan dezakegu, XVI. mendeko gauean konkretuki.

Marrakian ikus daitekeenez, herria goialdean kokatuta zegoen, etxe gehienak Aozaratzal/Oro/ Eskoriatzarako bide gurutzean, Urgutxia errekatxotik hurbil. Beherago, Dorretxe harro bat, Espilla izenekoa, eta erreka kontrari, zubi ondoan, Andramari Elizaren lehen irudia. Pixkat

beherago, Deba jarraituz Oxinbaltza izeneko errota, bere uralmatota guzti. Eta Arrasaterako bidean, eskumatarara, Aretxabaletako lehen eliza, San Migel de Bedarretako Monastegia.

Espilla eta elizaren arteko zabalguneko horrek Atxabaltako plaza foro beharra betetzen zuen. Bertan biltzen ziren herritarrek eta bertan ospatuko ziren, seguru asko, feria eta azoka. Hansuertatu ei zen, Oroko base-ritar bati idi parearen erostera joandakoan gertatutakoa. Jaitsi kalera, eta han non ikusten duen berari komeni zitzaion idi parearen baina, bertara hur-

bildu, eta ezin elkar uler-tu, saltzaileak arabarra baitzen. Badoa gure gizona gaztelaniaz zekien batengana eta kasuak esplikatzeko. Hurbiltzen zaio atxabaltar "jakintsu hori" arabarrari eta zera esaten dio:

- ¡Eh, tú! ¿Este buey... es aquel? (parea eta elkarrekin lanean ohitutakoak ote ziren jakiteko)

Eta arabarrak:

- ¡¿Que dices?! ¡Este es éste y aquel es aquél!

Aurreratzen da base-ritarra eta zerbait jakin nahian galdetzen dio:

- Ze esan jok?

Eta kaletarrak:

- Salduta dazela!

Kontuak aparte, eta marrakiaz San Martin inguruko argibiderik eskaintzen ez badigu ere, badakigu, jakin, 1490. urtean, hau da XV. mendean bukatu eta XVI. mendean zehar, jadanik S. Martin izeneko ermita, zin egiteko tokia zela. Eskuetan gurutzeko eta Ebanjelioak zutelarik, zin egiten zuten lur mokil bat jartzen zieten buru gainean euren lanak, gaur bezala, zuhur bete zitzaizten. XV/ XVI. mendeko ermita, gaur San Martin baserria da.

**I. Urreta
A. Antxia**

Gora eta behera



J.J. Aretxaga

Behetik gora igotea gatxa ei da, eta hori ondo daki **Igor Arenaza** futbolistak. Goranzko bidea poliki-poliki egin behar da eta animoak eskertu egiten dira. Lehengo egunean, animetako edo, "Premio a la Furia" izeneko saria eman zioten. Baina inportanteagoa beretako domekan Betisi sartutako gola izan zen, duda barik. Benetan gora igo duena **Andoni Zubizarreta** izan da, 82 partidu jokatu ditu Espainiako selekzioaz. Atxabaltako internazionalena dela esan daiteke. Goranzkoak berekin du beheranzkoa. Orain arte Eibarko Arrate taldean ibiltako **Iñigo Madinabeitia** Mondragoeko eskubaloi taldera joan da, baina herritik gero eta hurrago dago. Kirolaz zuzenean lotuta ez badago ere, badira herritik urtengo ez dutenak, **Patxi Filarmendik**, **Iñaki Calvoren** partez, futbo-zelaira zaintzearen ardura hartu du.


Gure goi mailako bertsolariak, **Jon Sara-**

suak, oraindik El Salvador inguruan jarraitzen ei du. Noiz arte? Auskalo. Dena dela, herrian baditu jarraitzaileak. Behe-behetik hasita, 15 neska-mutiko hasi dira Kurtzebarri eskolako bertso eskolan. Irakasleak **Amaita Agiriano** eta **Ainhoa Agirreazaldegi** izango dira.

Kiroletatik ihes egin dezagun. Gaztetzeko goi kargu barriak aukeratu berri dituzte. Idazkaria **Juan Guisado** izango da, Lehendakari ordeza **Juan M^o Angulo** eta denen gainetik lehendakaria: **Aitor Alcaide**.

Politikan ere mailak ei daude, errejionalekoak eta "primerakoak". Datorren hilean Oñatin Deba Garaiko kirol politikari buruzko topaketak izango dira. Topaketetako mahai inguru batean gure herriko politiko batek parte hartuko du, **Felis Beltran de Herediak**. Felisekin batera politiko "potolo" batzuk ere izango dira: Joseba Arregi... Zinegotzietan jarraituaz, **Resu Abasolo** "Forum europeo de la Evaluacion" elkarteko idazkari izendatu dute. Eskola pribatu eta publikoetako ordezkariak osatzen dute elkarte eta euren asmoa ebaluaketarako irizpideak zehaztea da. Datorren eguakotxean Kurtzebarri eskolan bilera izango dute.

Benetan gora igotea lortu dutenak **Jesus Arregi** eta **Luis Mari Urkia** izan dira. Udan Lenin (7.134) eta **korzhenevskoi** (7.105) mendietara igo zuten. Meritua dute, horrelako izena duen mendia topatzea ere...



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

30

ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman: "ATRAPADOS EN EL TIEMPO" filmea.

31

DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Gazteen-zako akanpada.**

- Murruxiko Mendizale Elkartearen urteera: **Arbilaitz-era.**

- Futbol partidua: U.D.A - Pasajes C.D.

- Zaraia zineman, arratsaldeko 4,30etan:

eta 7retan "ATRAPADOS EN EL TIEMPO" filmea.

1

ASTELEHENA

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Gazte-xoen akanpada.**

- Arratsaldeko 4,30retan eta 7retan, Zaraia zineman "SON-NERBY" filmea.

- **Domu Santu** eguna.

2

MARTIZENA

- Udaletxeko Ganba-

ran " **Emakumea eta sexualitate** "-ari buruzko hitzaldia Tril emakume taldeak antolatuta.

6

ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman "HEROES POR ACCIDENTE" filmea.

7

DOMEKA

- Murruxiko Mendi Elkartearen urteera: **De-**

baren jaiotza.

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Tropin-burura.**

- Arratsaldeko 4,30etan eta 7retan, Zaraia zineman "HEROES POR ACCIDENTE" filmea.

9

MARTIZENA

- Udaletxeko Ganbaran "Emakumea: harremanak eta komunikazioa; espazio publiko eta pribatua" buruzko hitzaldia Tril emakume taldeak antolatuta.

ARETXAZOKA

Lana

- Ingeneritzako ikasle bat, klaseak emateko prest: Matematika, teknologia, fisika eta kimika. O.H.O, REM eta U.B.lko mailetan. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 50 39.

- Irakasle titulatu klase partikularrak ematen ditu O.H.O.ko 1go mailatik 8. mailararte. Tfnoa: 77 10 72.

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Mitarte 15 kalean. Dei ezazu 79 74 95 telefono-ra, arratsaldeko 8,30etatik aurrera.

- Garaje bat salgai. Dei ezazu 79 29 19 telefonora.

- Pisu bat saltzen da. Interesatuak deitu 79 02 73 telefonora.

Etxebizitza

- Pisu bat alokatu gura dut. Interesatuak deitu 79 79 00, Leintz Lambide Eskolako telefonora, 8retatik 2,20ak arte eta Xabier Gonzalez-engatik galdetu.

- Pisu bat alokatuko nuke. Jantzi barik hobe. Interesatuak deitu 71 47 10 telefonora eta losugatik galdetu.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT
 
GARAJE OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN

 MANTEKA
 ANAIK

BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA

 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

ARLUTZ
 TABERNA

 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34


HAIZEA AKEITEGIA

 Mitarte Kalea, Z/G - Tfnoa: 79 85 57

T X I L T A R R A

ELIKADURA BEREZIA
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15

 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28
 ARETXABALETA

Zatoz ezagutzera ZUHAITZ jatetxea!


 BAZKARI ETA AFARI ONENAK!!!
 Tfnoa: 71 46 08
GATZAGAN

JAUREGI OKINDEGIA (Panaderia)
 Otalora, 10
 ☎ 79 57 47

DORLETA TABERNA
 Loramendi, 10
 ☎ 79 94 15

 **MAPFRE**
 Aseguroak

Angel Zubillaga
Aseguruen ordezkaria
 Errekabarren,3 20550 ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 11 76

 **MASAILARIAK**
MASAIK ZARAIA
 MASAIK eta
 OSTEOPATIA

 Loramendi 13 - 1-A
 Tfnoa: 79 71 55

IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77

"HERRASTI "
AKEITA ETXEA

 Aralar Kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

NERIAN
 Loradenda

 Otalora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66

ANEK BAI JAKIN !




... ORDENAGAILUAK ERABILTZEN ...



... ABEREEN BIZIMODUA IKERTZEN ...

... IPUINAK, KOMIKIAK, POESIAK ... ASHATZEN



... KIROL EZBERDINAK EGITEN ...

... KOTXEAK ERAIKITZEN ...

